

estrategiak estrategiak estrategiak estrategiak estrate

estrategiak estrategiak **estrategiak** estrategia


estrategiak estrategiak estrategiak estrategiak estrate

estrategiak estrategiak estrategiak estrategiak strateg

estrategiak estrategiak estrategiak estrategia



IRAKURTZEKO GOGOA PIZTEKO ESTRATEGIAK



INGELESEN HILERRIA

Helburu orokorra

Nobela historikoa idatzi aurretik, idazleak dokumentatzeko izaten duen premia jabetu behar dute ikasleek; kasu honetan karlistaldiei eta Independentzia Gerrari buruzko girotze historikoa lortzeko. Halaber, giro jallin baterako egokiak diren pertsonaiak nola sortu landu nahi da.

2

Orientabide orokorrak

Atseginez irakurtzeko moduko testua da, amaieran bat egingo duten bi istoriok osatua. Bi istorio kontatu arren, erraz irakurtzen da. Misterio-kutsua edukitzeak ere irakurtzen laguntzen du, argumentuari interesez jarraitzen baitzaio.

1. JARDUERA

(Irakurri baino lehen): **LIBURUAREN IZENBURUA**

Helburuak

- Obraren izenburuan oinarrituta, hipotesiak formulatzea.
- Hainbat hitz eta sintagmaren eduki lexikoa eta semantika lantzea.

Deskribapena

Liburuaren izenburutik abiatuz, gaia zein den azaltzeko eskatuko zaie ikasleei. *Hilerrri* hitzaren eduki lexikoa eta semantika sakontzea eskatuko zaie, eta ondoren, izen horren eta izenlagunaren arteko harremanean. Irakasleak ikasleen hipotesiak bideratuko ditu, gisa honetako galderak eginez: zer iradokitzen du *ingelesez* izenlagunak? Hilerrria Ingalaterran al dago? Ingalaterran baldin badago, beharrezkoa al da *ingelesez* izenlaguna gehitzea? Hilerrria Ingalaterratik kanpo dagoela esan nahi al du horrek? Zergatik? Non? Binaka edo hirunaka, hipotesiak landu; ondoren, eztabaidatu, eta emaitzak argudiatu eta alderatuko dituzte.

3

Orientabideak

Irakasleak izenburuaren zergatia azal dezake, edo ikasleak irakurtzen hasi arte argitu ez. Liburuaren atzealdean eta kontakizunaren hitzaurrean azaltzen zaigu arrazoi hori. Irakasleak beste hainbat uste erabil ditzake, liburua irakurtzeko beste hipotesiren bati bidea irekiz.

2. JARDUERA

(Irakurri baino lehen): **GIROTZE HISTORIKOA**

Helburuak

- Liburuko gertakarien testuinguru historikoa ezagutzea: garai jakin batean Euskal Herrian izandako gerrak.
- Gertakari historiko bati buruz dokumentatzen jakitea.

Deskribapena

Irakasleak karlistaldiei buruzko informazioa eman beharko die ikasleei (Lehen Karlistaldia: 1833-1840; Bigarren Karlistaldia: 1846-1849, eta Hirugarren Karlistaldia: 1872-1876).

Ikasleek, launaka edo bosnaka, aipatutako gertaera historikoei buruzko dokumentazioa bilatu, eta eskema sozio-historikoa egingo dute.

4

Orientabideak

Ikasleek nobelaren argumentuari dagozkion gertaera historikoen berri izan beharko dute. Horrela, gertakarien garapena ulertu ahal izango dute, nahiz eta nobelaren argumentua landutako aro historikoa baino beranduago gertatu.

3. JARDUERA

(Irakurri baino lehenb): EPITAFIOAK

Helburuak

- Liburua irakurtzeko gogoia piztea. Horretarako, idazlea Urgull mendiko hilerrian dagoen epitafio erreal batean oinarritu da.
- Epitafio batetik abiatuz, pertsona baten balizko historia asmatzea.

Deskribapena

Hobi bateko epitafioa emango diegu ikasleei:

Sacred To The Memory Of Whilliam I. M. Tupper

Colonel Of The 6° Scoth Bal And Late Of The 23° R.W.E.

Who At The Head Of His Reg

Fell Mortally Wounded At 32 Years Of Age

5

Lehenik, epitafioa itzuliko dute. Ondoren, epitafioa idatzi zuen pertsonaren balizko historia asmatzeko eta deskribatzeko eskatuko zaie.

Orientabideak

Irakasleak ikasleei azalduko die autorea datu errealetan oinarritu dela fikziozko nobela idazteko orduan, eta ikerketaren emaitzak asmatutako datuekin nahasi dituela. Era berean, XIX. mendeko ingelesezko hilobien zergatia argituko die. Komeni da jakinaraztea, ingelesak, gehienak protestanteak izanik, ez daudela katolikoen hilerrietan hobiratuta. Euskal Herrian, ingelesez bi hilerri daude: bata Donostian, Urgull mendian, eta bestea Sondikan (Bizkaia).

4. JARDUERA

(Irakurri bitartean): **ESPIRITUEKIN BERRIKETAN**

Helburuak

- Irudimena garatzea eta elkarrizketak asmatzea, nobelatik ateratako adibideak erabiliz.

Deskribapena

Obran pertsonaiekin hitz egiten duten espirituak agertzen dira.

Ikasleek, taldeka, pertsonaiaren eta espirituaren arteko elkarrizketa asmatu beharko dute, pertsonaia bikoteetako bat aukeratuz: Virginia/Korotxu, Ordizia jn./Korotxu, Koplari itsua/Korotxu.

Ikasleek elkarrizketa irakurriko dute. Aurretik, zer bikote aukeratu duten esango dute.

6

Orientabideak

Taldearen maila kontuan hartuz, irakasleak hiru elkarrizketa presta ditzake, bikoteko bana, eta irakurketan parte hartu. Komeni da asmatutako elkarrizketak eta liburuan azaltzen denak lotura edukitzea.

5. JARDUERA

(Irakurri bitartean): **PERTSONAIK SORTUZ ETA BIRSORTUZ**

Helburuak

- Pertsona errealen ezaugarri fisikoetan eta nortasunean oinarrituz, pertsonaiak sor daitezkeela ohartzea.

Deskribapena

Ikaskideak binaka edo hirunaka bilduko dira. Talde bakoitzari liburuko pertsonaia bat egokituko zaio, eta haren hiru ezaugarri nagusiak idatziko dituzte. Adibidez, Ordizia jn.: egurrezko hanka, liburutegiko saguak bezain zuhurra, gezurtia eta handigura....

Ezaugarri bakoitza ebaki, paper zati batean itsatsi eta irakasleari emango diote.

Irakasleak paper zati guztiak nahasi, eta hiru hartuko ditu, alirizira. Ondoren, taldeek beste pertsonaia bat asmatuko dute, ateratako hiru ezaugarri horiekin. Haren deskribapena egin, eta ozen irakurri.

Orientabideak

Irakasleak ikasleei azalduko die autoreak Wilham Turner pertsonaia asmatu duela, hilari batean oinarrituz; San Telmo Museoko liburuzainaren (1950-1960) ezaugarri fisikoak hartu eta Ordizia jn. bihurtu duela. Egileak dio bera Peru dela, haren adina zuenean. Komeni da ikasleek jakitea edozein egilek pertsonaiak sor ditzakeela elementu errealak eta asmatutakoak nahasiz.

6. JARDUERA

(Irakurri ondoren): **TALISMANAK**

Helburuak

- Nobelaren elementu esanguratsutik abiatuz, aipatutako elementu horri buruzko ikerketa-ahalmena garatzea.

Deskribapena

Urdintza harribitxia talismana da eta, ustez, protagonistak babesten ditu.

Ikasleei eskatuko diegu liburuetan begiratzeko edo familiakoei galdetzeko ea ezagutzen duten madarikazioetatik babesten duen harribitxirik. Talismanen gaineko galderei erantzungo diete: zer diren, nork erabiltzen zituen, zergatik, noiz, zer motatako talismanak zeuden, etab.

Ikasleek talismanen gainean hitz egingo dute, irakaslearen galderei erantzunez. Hala nola, gaur egun ba al dago talismanik? Zer motatakoak? Nork erabiltzen ditu? Zergatik?

Ondoren, talde handian komentatuko dute. Ikasleek egindako ikerketaz gain, talismanak ageri diren literatura-lanak eta filmak ere aipa daitezke.

Orientabideak

Komeni da ikasleei sineskeriei buruz galdetzea.